

Elgoibar - 1294. zenb.
XXX urtea - 2023-07-14



TOKIKOM


BARREN



**Bete-beteak datoz
santanak**



%35 eko
beherapena
denboraldiko
ehunetan.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



**Galdetu
prezioak
eta gustura
erantzungo
dizugu.**

Badatoz **San Bartolome** jaiak!

ZURE ENPRESA, NEGOZIO EDO DENDAREN IZENEAN
JAIETAN BEZEROAK ZORIONDU NAHI BADITUZU, JARRI GUREKIN HARREMANETAN.



barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

☎ 943 743 704 📞 688 769 657

Jon Aranoa
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneratik ostiralerantz: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopoldo deli sarbitzua daukagu.
Datu ardua hartzeko.

MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- ☑ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ☑ MULTIKOPISTAK
- ☑ FOTOKOPIAGAILUAK
- ☑ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ☑ MARRAZKETA MATERIALA
- ☑ INFORMATIKA
- ☑ FAXA

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

MILARBIRE

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

**Gertuan erosita,
bertakoa balioesten duzulako.**

**Denda handien aldean,
enplegu egonkorragoa
eta kalitatezkoagoa
sortzen dugulako!**

- Garbigailuak ● Roonba ●
- Tabletak ● Telefono libreak ●
- Aspiragailuak ● Ile-lehorgailuak ●
- Telebistak ● Hozkailuak ●
- Berogailuak ● Labeak ● Indukzioa ●

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

 youtube.com/@Elgoibarrennet

Asier Guisasola Iñiguez

Portu, ubide eta bideetako ingeniaria

Gillotinaren abantailak



**"Ideia berriak
ondo datoz
gaur egungo hirigintzan"**

XVIII. mendean, hiltzera kondenatutako enak atatzeko era mingarriak arintze aldera, gillotinaren erabilera demokratizatzea lortu zuen Gillotin mediku eta diputatu frantsesak. Ilustrazioko giza eskubideen ideia berriak medio, afera hori era seguruago, azkarrago eta ziur aski sufrimendu gutxiagorekin gauzatzen zen. Jakina da, Espainian ez bezala, gailu horrek zeharkako hainbat onura erreal ekarri zituela Frantziara ere.

Paraje horietan ibili gara aurreko astean. Bidarteko kanpenean bungalowa alokatu eta bertako hondartza eta txokoak ezagutzeko aukera izan dugu bizikletaz, automobila kanpinetik mugitu gabe. Hondartzarako bidegorri ondoan, errekatik gertu-gertu, hiruzpalau futbol zelai besteko azalerako gunee berde xelebrea sortua dute, pare bat metro sakonerakoa. Googlemap-en Rue de la Chapelle idatzi eta zerutik ikusita Donejakue bideko erromesen maskorraren itxura dauka. Esango nuke bi funtzio hidrauliko betetzeko eraiki dutela. Batetik, azkenaldian albisteetan ageri diren euri jasa handietan, kaleetako estolderi hodiekeraman ezin dituzten euri urak gordetzeko balio du; ondoren poliki-poliki ur soberakin hori errekan husten joango da ondoko orube eta eraikinetan kalterik eragin gabe. Eta bestetik, errekek ur maila altua dakarrenean, bertako ur bolumen askoren hustubidea da; era horretara, errekek ez du gainezka egingo, edo egiten badu, beranduago egingo du. Kalte eta sufrimendu gutxiago, beraz, Bidarteko herrian. Gillotinarekin bezala.

Horrelako ideia berriak ondo datoz gaur egungo hirigintzan. Akaso, baina, ideia horiek gauzatzeko diputatu, arkitekto, zinegotzi, edota ingeniari ilustratu ausart gehiago behar ditugu gure artean.

4 GUTUNAK

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzikun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Trena 30 minuturo

2022. urtearen bukaeran hasi genuen Eibar eta Zumaia arteko tren zerbitzua hobetzeko kanpaina. Bertan eskatzen dugu astean zehar Zumaia eta Eibar arteko zatiaren maiztasuna handitzea, hau da, ordubetan behin izan beharrean, ordu erdian behin izan dadila. Gure eskaera gutxienezkotik hasi dugu, gure uste apalean egunerokoan ezinbestekoak diren ordu tarteak indartu beharko lirakeelako behintzat, hau da, puntako orduak: goizez (7:00-9:00), eguerdian (13.00-16.00) eta iluntzean (19.00- 21.00).

Helburu horrekin Debabarrena, Urola erdia eta Urola kostako hainbat herritan eta auzotan sinadura bilketa egin dugu: Zumaia, Arroa Behea, Deba, Mutriku, Mendaro, Altzola, Elgoibar eta Eibarren, hain zuzen ere. Guztira 5.676 sinadura jaso ditugu. Aipatu beharra dago sinatzera animatu den askok adierazi digula egun guztian zehar, baita asteburuetan ere, maiztasuna ugartzeko eskatu beharko genukeela. Izan ere, gaur egun, Zumaia eta Eibar artean trena ordubetan behin baino ez daukagu bi noranzkoetan. Eibar eta Bilbo artean zerbitzua ordu erdi dago (egunaren zati handi batean Elgoibartik hasita), baita Zumaia eta Donostia artean ere. Donostia - Bilbo ibilbide guztian, Altzola, Mendaro, Deba eta Arroa Behea bakarrik geratzen dira 30 minutuko zerbitzu hori gabe.

Trenaz gain, autobusak daude Deba eta Eibar artean (Mallabia-Ondarroa linea), baita Zumaia eta Deba artean ere (Ondarroa-Zumaia linea). Lehenengo kasuan, autobusak ordu daude, baina ia trenaren orduetegi bera dute. Bigarren linea, aldiz, bi eta hiru orduetik behin baino ez dago, eta trenaren orduetegiarekin bat dator.

Izugarria da trenez dabilen jende kopurua, are gehiago orain, txartelaren prezioa jaitsi denetik eta erregaien prezioa garestitu denetik. Gainera, ziur gaude maiztasuna ugartzuz gero, askoz ere pertsona gehiagok erabiliko lukeela trena. Izan ere, lan eta eskola orduetegiak askotan ez datoz bat trenaren orduetegiarekin, eta ordu bete zainegon beharrak kotxea hartzera bultzatzen du jendea.

Hori horrela izanik, uste dugu gure herria gobernatzen duten administrazioek ezinbestean jarri behar dituztela hainbeste kezkatzen gaituen ingurumena zaintzeko baliabideak, garraio publikoa indartuz, isurketak murriztuz eta herritarren ongizatea hobetuz, besteak beste.

Ildo horretatik, gure ekimenaren arrakasta ikusita, Debabarreneko, Zumaia eta Zestoako alkateek gure kanpaina babestu zuten, eta babes horrekin 2023.06.02an Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailera helarazi genuen gure eskaera, hau da, astean zehar Zumaia eta Eibar arteko zatian trenen maiztasuna handitzea, alegia, ordubetan behin izan beharrean, ordu erdian behin izatea, puntako orduetan behintzat. 2023.06.15an Eusko Jaurlaritzatik erantzun ziguten esanaz Euskotreni helarazi ziotela gure eskaria, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan. Beraz, nahiz eta tren zerbitzuaren eskumena Eusko Jaurlaritzarena izan, Euskotreni helarazi diote eskaera.

Gauzak horrela, 2023.06.19an Euskotreni egin diogu eskaera, lehen eskutik beraien erantzuna izango dugun esperantzarekin, milaka herritarren eskariarentzat irtenbide egoki bat izango dugulakoan. Guztion artean hobetu dezagun garraio publikoa!

**Euskotren 30 minuturo plataforma
(Debabarrena, Urola kosta eta Urolako erdiko
hainbat herritarren izenean)**

Oharra

Uztailaren 28an banatuko dugu opor aurreko azken zenbakia. Ale horretan zerbait argitaratu nahi izanez gero (merkatu txikia eta zorionak atalak ez dira egongo), uztailaren 26rako bidali behar da informazioa BARREneko erredakziora.

BARREN



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus

📞 943 744 112

📞 688 655 658

Txakurrek ezin dute edozein tokitan txiza edo kaka egin:

"Botikako ate ondoan txakurren batek egunero txiza egiten digu. Garbitu arren, ezin dugu fatxadatik marka kendu. Aste berean lau aldiz kaka egin digute ate aurrean, eta guk jaso behar izan dugu bezeroek zapatetan farmazia barrura ekarri ez dezaten. Badakit txakurra duten guztiak ezin ditugula zaku berdinean sartu, baina arduraz jokatzeko eskatu nahi nieke".



Zergatik debekatu dute Urazandiko gune honetan aparkatzea?:

"Urazandi kalean edukiontziak lekuz aldatu dituzte, baina lehen zeuden tokian aparkatzea debekatu egin dute, eta ez dut ulertzen zein den arrazoia. Trafikoa norabide bakarrean izanda, ez dut uste autoek hor traba egiten dutenik, eta gune horretan sartzen dira zortzi bat auto. Urazandin aparkatzeko dagoen arazoa kontuan izanik, aparkaleku asko kendu dituztela iruditzen zait". Hirigintza Sailerak bidali dugu galdera, eta ondorengo erantzun dute: "Zabor edukiontzien lekualdaketa biltzen dituen kamioiaren beharrei erantzuteko egin da, eskumako aldetik biltzen duelako zaborra. Inguruko aparkaleku eta zamalanetarako guneak auzoko zirkulazio berriaren eta dagoen lekua araberako egokitu dira".



Txalo bat Urazandiko Jai Batzordeari:

"Sekulako giroa izan da Urazandiko jaietan eta antolatzaileen lana eskertu nahi dugu. Zapatuko paella oso ona zegoen, eta domekako haur parkea sekulakoa izan zen. Txalo bero bat merezi duzue".



|| Zehaztu dituzte Udal karguak eta soldatak



Azken urteetako antolaketa ereduari eustea erabaki dute Elgoibarko eta Mendaroko udaletan. Hiru esparrutan banatuko dute Udala: Antolaketa, lurraldea eta herritarrak. Horrez gain, osoko bilkuren aldizkakotasuna, Bozeramaileen Batzordearen osaera, ordainsariak eta beste ere onartu dituzte.

✍️ Ainhoa Andonegi / Ainara Argoitia

Maiatzaren 28an egin zituzten Udal Hauteskundeak, eta EAJK irabazi zituen Elgoibarren. Ekainaren 17an Maialen Gurrutxaga Uranga EAJKo hautagaia izendatu zuten alkate, eta ordutik orain arte Udal berria eratzeko negoziaketetan aritu dira. EAJK PSE-EEekin osatu du Udal Gobernuak, eta elkarlanean arituko dira datorren legealdian. Udalaren barne antolamendua, bestalde, honela adostu zuten: Alkatea: Maialen

Gurrutxaga Uranga; EAJKo bozeramailea: Andrea Arriola Ferrer; EH Bildukoa Aitziber Aranberri Uranga, eta PSE-EE alderdikoa Ariana Nogales Babarro. Osoko bilkurak hileko azken martitzenetan izango dira, 18:30ean. Era berean, lan batzordeak ere zehaztuta geratu dira, eta honakoek osatuko dituzte: EAJ-ko hiru kide egongo dira batzorde bakoitzean, EH Bilduko bi kidea eta PSE-EEko bat. Honela geratu dira batzordeak:

Bozeramaileen batzordea

- Lehendakaria: Maialen Gurrutxaga Uranga.
- EAJ-PNV: Andrea Arriola Ferrer.
- EH Bildu: Aitziber Aranberri Uranga.
- PSE-EE: Ariana Nogales Babarro.

Tokiko Gobernu Batzordea

- Alkatea: Maialen Gurrutxaga Uranga.
- Batzordekideak: Ion Zubiaurre Ros, Andrea Arriola Ferrer, Ricardo Astigarraga Zabaleta, Aitziber Aranberri Uranga, Ariana Nogales Babarro.

Bestelakoak

Beste ardura eta kargu hauek ere banatu zituzten:

- Debabeheko industrialdea: Maialen Gurrutxaga Uranga.
- Gipuzkoako Ur kontsorzioa: Ion Zubiaurre Ros.
- Debegesa: Maialen Gurrutxaga Uranga.

- IMH eta Makina Erremintaren Museoa: Maialen Gurrutxaga Uranga.

- EUDEL Maialen Gurrutxaga Uranga.

- Debabarrena eta Badesa Mankomunitatea: Ion Zubiaurre Ros, Iñigo Loiola Garate eta Ariana Nogales Babarro.

- Debabe Mankomunitatea: Aitor Iriondo Unamunzaga eta Aitziber Aranberri Uranga.

- Debemen: Iñigo Loiola Garate.

- Udal Eskola Kontseilua: Maialen Gurrutxaga Uranga.

- Haurreskolak Partzuergoa: Maialen Gurrutxaga Uranga.

Soldatak

Udaleko kideei esleitutako soldatei dagokienez, honako hau erabaki zuten 2023rako, EUDEL, Euskal Udalerrien Elkartearen gomendioetan oinarrituta:

- Alkatea, Maialen Gurrutxaga Uranga: 77.928,90 euroko urteko ordainsari gordina.
- Lehen alkateordea, Ion Zubiaurre Ros: alkatearen ordainsari baliokidea, % 10eko kenkariarekin, eta urteko 70.136,01 euro.
- EH Bilduko bozeramailea, Aitziber Aranberri Uranga: lehen alkateordearen ordainsari baliokidea, %10eko kenkariarekin, eta urtean 63.122,41 eurokoa.
- EAJ Udal Taldeko bozeramailea, Andrea Arriola Ferrer: %30eko dedikazio partziala, urtean 23.378,67 euro.

- PSE-EE Udal Taldeko bozeramailea, Ariana Nogales Babarro: %30eko dedikazio partziala, urtean 23.378,67 euro.
Azkenik, arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten zinegotziek honako ordainketa hauek jasoko dituzte bertaratzeagatik:
- Osoko bilkura. Finkoa: 165 euro. Aldakorra: 85 euro.
- Informazio-batzordeak. Finkoa: 110 euro. Aldakorra: 65 euro.
- Tokiko gorbenu batzarra. Finkoa: 110 euro.
- Bozeramaileen batzordea. Finkoa: 110 euro.

Zinegotzien zerrenda

- Zerbitzuak eta Landa Garapena: Iñigo Loiola
- Ogasuna eta kontratazioa: Atsegin Uzuriaga
- Gizarte Ongizatea: Pili Iranzo
- Gazteria eta euskara: Aitor Iriondo
- Kirol Patronatua eta Pertsonala: Ricardo Astigarraga

- Hirigintza: Ion Zubiaurre
- Kultura: Andrea Arriola
- Berdintasuna eta Sustapen ekonomikoa: Ariana Nogales
- Trantsizio energetikoa eta partehartzea: Asier Araujo

MENDARO

Mendaroko Udalean ere gaur arteko antolaketa-eredu berari eustea onartu zuten asteleheneko osoko bilkuran eta honela banatuko dituzte karguak. Udalaren barne-artolamenduari dagokionez, Enetz Ezenarro izango da alkatea eta EH Bildu taldeko bozeramailea, eta Iñaki Arregi izango da EAJ taldearen bozeramailea. Osoko bilkurak, berriz, hileko azken eguenetan izango dira aurrerantzean ere, 19:00etan.

Antolakuntza batzordea

- Lehendakaria: Enetz Ezenarro Arriola.
- Bokalak: Sonia Garcia Raposo, Borja Rodriguez Barreras, Amaia Urra Mardaraz eta Iñaki Arregi Uria.

Herritartasun batzordea

- Lehendakaria: Jabier Muñoz Moreno
- Bokalak: Dorleta Lazarobaster Arakistain, Enetz Ezenarro Arriola, Nerea Isasi Bedayo eta Nuria Guerola Horrillo.

Lurralde batzordea

- Lehendakaria: Borja Rodriguez Barreras.

- Bokalak: Sonia Garcia Raposo, Jabier Muñoz Moreno, Iñaki Arregi Uria eta Nerea Isasi Bedayo.

Bestelako ardurak

- Enetz Ezenarro Arriola izango da Mendaroko Udalaren ordezkaria honakoetan: DEBEMENen, Mendaro ikastolan, Debabarreneko mankomunitatean, Debegesan, Gipuzkoako Ur Kontsorzioan eta Deba bailarako industrialdean.
- UEMA: Dorleta Lazarobaster eta EAJko ordezkari bat.

Soldatak

Mendaroko Udaleko alkateak jardun eskusiboa izango du, lanaldi osoz, eta EHUKo irakasle izan dela izan duen soldata bera izango du: urteko 50.045,88 euroko soldata gordina. Arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten zinegotziek bileretan parte hartzeagatik jasoko dutena:

- Batzordeko lehendakariak: 95€/bilera.
- Bokalak: 40€/bilera.
- Talde politikoak: 105 euro talde politikoagatik + 33€ zinegotzi bakoitzagatik

Sektoreko lan hitzarmen berria sinatu arren, grebari eutsiko diote kiroldogiko hainbat langilek



Apirilaren 20an hasi zuten greba kiroldogiko monitore eta sorosleek. BPXport enpresari eta Udalarari lan baldintzak hobetzea eskatzen diete, eta salatu dute 2012ko soldatekin jarraitzen dutela eta urte hartan gainera, %10eko jaitsiera izan zutela. Langileetako batzuk lanera itzuli diren arren, beste batzuek greban jarraitzen dute oraindik. Hiru hilabete bete dira greba hasi zutenetik, eta ELA sindikatuak deituta, manifestazioa egin zuten eguaztenean, Kiroldogitik udaletxe aurrera arte. Langileek, ELAko ordezkariak eta hainbat herritarrek eman zieten babesa grebalariei.

BPXport enpresatik jakinarazi dute, bestalde, Gipuzkoako Titulartasun Publikoko Kirol Instalakuntzen hitzarmen berria sinatu zela astelehenean. Enpresatik esandakoaren arabera, hitzarmen hori sektoreko enpresa eta

administrazio guztientzat izango da aplikagarria derrigorrean, eta Gipuzkoako langile guztien baldintzak hobetzea ahalbidetuko du. "Besteak beste, Elgoibarko Olaizaga kiroldogiko eta Mintxetako BPXport enpresako langileei eragingo die, eta kontratu administratibo berriarekin batera hitzarmen honetako hobekuntza guztiak jasoko dituzte: besteak beste, soldata igoerak, atzeraeraginezko ordainketak eta urteko lan orduen murrizketa". UGT, CCOO eta LAB sindikatuek sinatu dute hitzarmena, baina ELA ez da akordio horretara batu, "hitzarmenak jasotzen dituen baldintzak ez zaizkielako nahikoak iruditu", eta kiroldogiko hainbat langilek greban jarraituko dute. Aste honetan Udalarekin bildu dira, eta datorren astean BPXport enpresarekin bilduko dira, akordio batera iristeko ahaleginean.

Iria Andradek kudeatuko du Aita Agirre Kultur Kafea abuztutik aurrera



Iria Andradek kudeatuko du abuztutik aurrera Aita Agirre Kultur Kafea, eta bi urteko prestazioa izango du, ondoren beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Urteko kanona 2.400 eurokoa izango da (BEZik gabe). Andrade abuztuaren erdialdean hasiko da lanean eta irailaren 15ean irekiko du lokala jendearentzat. Tabernaren ordutegia hauxe izango da: Asteleheneetik eguenera 07:00etatik 09:00ak bitartean irekiko du, eta 22:00etan itxi. Bariku eta zapatuetan 07:00etatik 09:00etara bitartean ireki, eta 01:30ean itxi; eta domeka eta jaiegunetan 09:00etatik 11:00etara ireki eta 22:00etan itxi. Era berean, hilean behin, gutxienez, musika-kontzertu bat eta beste mota bateko kultura-jarduerak antolatuko ditu.

Irakasleek hasiko dituzte santanak

Erretiroa hartu berri dute Arrate Iriondo, Arrate Loiola eta Kontxi Arrietak, eta beste bi ikasurte baino ez ditu falta Luis Salegik eskolako giltzak entregatzeko. Mendaron irakasle ibilitako belaunaldi baten ordezkari dira, 40 urte inguruan irakaskuntzan jardun direnak eta aurten santanetako txupinazoa botako dutenak. Aitortu dute pozarren hartu dutela Mendaroko Udalaren gonbidapena, eta esker on berbak izan dituzte Mendaroko herriarentzat ez ezik urte guzti hauetan ikasle, lankide eta bidaide izan dituzten guztientzat.



 Ainara Argoitia

Arrate Iriondo, Arrate Loiola, Kontxi Arrieta eta Luis Salegi.

Udaletxeko balkoira igoko dira uztailaren 22an santanei hasiera ematera eta hasita daude zer eta nola esan pentsatzen. Jakin badakite ikasle izan dituzten asko izango dituztela begira plazatik eta konta ezin beste izen eta aurpegi etorriko zaizkiela akordura ziurrenik, baina badute bat bereziki gogoan izango dutena: Mari Jose Aranberri andereñoarena [2002a hil zen, minbiziak jota]. Lau dira gaur kafe baten bueltan batu ditugun lagunak, sarreran aipatutakoak eta santanetako programa iragartzeko eskuliburuan ikusiko dituzuenak, baina gehiago dira Udalaren aitortza jasoko dutenak, eta azpimarra jarri nahi dute hortan solasaldirako batu ditugunek. Nork bere ibilbidea egin du, baina bada antzekotasunik haien kontakizunean.

Magisteritza egin aurretik ekin zion irakaskuntzari, esaterako, Arrate Loiolak, mojetan. 18 urte zituen Haur Hezkuntzako

ume haiekin hasi zenean. Pare bat urtean aritu zen han, harik eta 1980an mojen eskolak eta ikastolak bat egin zuten arte Mendaron. Guztira 21 urte egin zituen Mendaron irakasle Loiolak, eta Zarautzera leku aldaketa eskatu zuen gero, 1994an, Mendaroko ikastola Euskal Eskola Publikoaren sarean integratu zenean. Gerora beste 24 urte bete ditu Zarautzen.

Mojen eskolaren eta ikastolaren bat egitea irakaskuntzaren historian mugarri bat izan zen Mendaron, eta ikastola sortu izana bera beste bat, euskaraz hazi garenontzat azpimarragarria. Klandestinitatean sortu zuten ikastola, Garagartzan, mojetako lokalean, kristau ikasbidea zioen letreroaren atzean. Txomin Longarte, Jose Mari Berasaluze, Inazio Garate, Santos Arriola eta Txomin Urbietaren ekimenez abiatu zen proiektu hura, Felix Etxeberria (Elgoibar, 1926-2022) eta Imanol Laspiurren (Eibar, 1929-1998)



iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutuz-gain industriagunea, 9 - 20850 Mendara
943 756 112 / 636 497 485 - www.iraolagoitia.com



Artisanu aroztzia



Etxe-aldaketa zerbitzua



Salmenta eta banaketa



Eskarmentua eta kalitatea

Ondo pasa jaietan!

aholkularitzarekin eta Jose Roteta abadearen isilpeko sinadurarekin. Juanita Loiola izan zen ikastolako estreinako andereñoa, baina laster batu zitzaizkion Kontxi Arrieta eta Mari Jose Aranberri zena ere, 1980an. 20 urte zituela hasi zen Arrieta irakasle Mendaron eta 43 ikasturte bete ditu. Tarte horretan, askotariko ardurak betetzea egokitu zaio. "HHn ez, beste lanpostu guztietan izan naiz eta esango nuke Hezkuntzaren zortzi erreforma ezagutu ditugula gutxienez", dio. 1980koaz dio "historikoa" izan zela. Baziren ordura arte hiru eskola, ikastolaz eta mojenaz gain, eskola publikoa esaten ziotena ere bazelako sasoi hartan, baina ez zen denentzako adina ikasle eta hain justu ere, horixe izan zen bat egiteko arrazoi nagusietako bat; hori eta umeei herrian eutsi nahia, ordurako ikastolako guraso batzuk hasiak zeudelako umeak Elgoibarko ikastolara bidaltzen, Mendaron ez zutelako 6 urtez gorakoek ikasketak euskaraz jarraitzeko aukerarik.

Kontxi Arrietaren adinkidea da Arrate Iriondo. Herritik kanpora hasi zuen hark ibilbide profesionala. Gasteizen egin zituen magisteritza ikasketak eta Arabako Errioxan egin zituen aurreneko hiru bat urte lanean, Eltziegon. Gero, Legutio, Durana eta Arabako beste hainbat herritako eskolak ezagutu zituen, harik eta Gipuzkoara leku aldatzea eskatu zuen arte, administrazioak horretarako aukera zabandu zuenean, ez baitzen ordura arte probintzia batetik bestera aldatzeko baimenik. Gipuzkoan, Soraluzekoa da ezagutu zuen estreinako ikastetxea eta gero urte mordoska bat egin zituen Elgoibarko Herri Eskolan. Handik etorri zen Mendarora eta pare bat urte egin zituen herrian.



Txoko Txiki izeneko eskolak, Azpilgoetan (📍 Anjel Bazterretxea)

Azkeneko urteak, baina, helduen Hezkuntzan eman ditu. "Beste mundu bat da, baina ordura arte ezagutu nuena bezain aberasgarria", dio.

Laukote honetan Luis Salegi da gazteena. Erretiroa hartu berri dutenen poza usaintzen hasia da haien ondoan eserita, baina nabarmendu nahi du bi urte falta dituela oraindik erretiroa hartzeko, ez dezan inork pentsa amaitu duela balkoian ikusten dutenean. Immaculada mojaren orde hasi zen Mendaroko ikastolan lanean, irakaskuntza ikasketak amaitu eta urtebetez lanik gabe egon ostean. 1985. urteko iraila zen. "Euskaraz egin nituen unibertsitateko ikasketak, lehenengo promozioa izan baitzen gurea Euskal Filologia izenpean magisteritza euskaraz egin zuena. Euskaraz ikasi, eta gaztelania ematen hasi nintzen lanean", azaldu du. 38 urte badira ordutik.

Publifikazioa eta ikastetxe berria

Luis Salegi lanean hasi zenerako Mendaro herri egina zegoen -1983an- eta irakaskuntzaren alorrean ere hasiak ziren egonkortze baterako pausoak ematen, esan bezala. 1994a izan zen ardatz historikoan beste data aipagarri bat. Ordura arte ikastola pribatu gisa funtzionatzen



ASKETA S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS

943 191952

ondo pasa jaixetan!!!



Gaur egungo ikastetxea eraikitzen ari zireneko argazkia, Anjel Bazterretxearen artxibokoa.

zuen sare publikoan sartu zen. Garai hortakoa da gaur egungo Mendaro Ikastola eraikina ere [1994ko irailean hartu zituen lehenengo ikasleak, eta 1995eko udaberrian inauguratu zuten ofizialki, Jaurilaritzako orduko lehendakaria, Jose Antonio Ardanza, bertan zela]. OHO Oinarrizko Hezkuntza Orokorra sistema zegoen orduan indarrean, zortzi urteko ikasketek osatzen zutena, eta 13 urtera arteko ikasleak hartzen zituen Mendaroko eskolak. Gero etorri zen erreforma OHO kendu eta Lehen Hezkuntza eta Bigarren Derrigorrezko Hezkuntza sortu zituena, eta geroztik, seigarren ikasturtean, 11-12 urterekin, Elgoibarko Instituturako bidea hartzen dute Mendaroko eskola-ume gehienek, Hezkuntza Sailaren Eskola Mapan zehaztutakoa jarraituta.

1994an, eraikin berria

Historikotzat dute gaur egungo eraikina eraiki izana, ordura arte lokal ezberdinetan sakabatuta izan zirelako ikasleak Mendaron. "Publiko egitearen truke herrian eraikin berria egiteko aukera eskaini zieten hainbat udalerriri, tartean Mendarori, Zumaiari eta Errezili, eta bestela ere etorriko zen beharbada, baina hala eraiki zuten gaur egungo

eraikina hemen", azaldu du Salegik. Eta gehitu du Loiolak: "Erabaki hori hartu zuen batzordeak beldur puntu bat ere bazuen herriko umeak Elgoibarrera joango ote ziren. Ikasle kopuari dagokionez, minimotan geunden". 98 bat ikasle zituen Mendaroko ikastolak 1994an. Gerora 300 izatera ere iritsi dira, baina apalduz doa kopurua.

Eraikin hori eraiki aurretik, zeharo sakabatuta egon ziren urte askoan Mendaron eskola-umeak. Garagartzan, gaur egun musika eskola dagoen lekuan, Haur Hezkuntzako haurrak eta Lehen Hezkuntzako 5., 6., 7. eta 8. mailetakoak zeuden, mojen eskolan. Gaur, haurreskola dagoen lekuan zeuden LHko 1. eta 2. mailakoak, eta Azpilgoetan, 3. eta 4. mailetakoak; talde bat, Olianeko lokalean, denda zaharra zegoen lekuan, eta bestea, Kultur Etxean. 1983an, baina, urak hartu zuen Mendaro. "Gaur haurreskola dagoen eraikin horretan hormako erlojuraino iritsi zen ura eta dena galdu genuen. Orduan Azpilgoetara aldatu gintuzten lekuz. Barrakoi batzuk jarri zituzten Kultur Etxe aurrean haurrak hartzeko; 'probisioanal, baina betiko' esaten dena. Txoko Txiki izena eman genien, baina barrakoi haiek ekarri bitartean, 1 eta 2. mailetakoak Antonio



IRIONDO

www.iriondo.com

*Jai zoriontsuak
opa dizkizue!*

Anjel Bazterretxea



Anjel Bazterretxea



Tellabideren iturgintza zegoen lokalean egon ginen, gelak izara zaharrekin banatuta", gogoratu du Arrietak.

Prekarioan ibili baziren ere, oso oroitzen onak dauzkate guztiek garai hartaz. "Dena egiten genuen beste era batean. Eskolan oreka egin eta Julio Salegi okinari deitzen genion labea libre noiz izango zuen galdetzeko. Han egiten genituen gure opilak. Edo, eguraldi ona egiten zuela eta terrazara ateratzen genituen umeak, marrazkiak egitera! Natural jokatzeko genuen", dio Arrietak. "Orain denerako behar da baimena, eta hainbeste gauza entzunda, askotan beldurtu ere egiten gara irakasleak. Guretzat gaur erosoagoa da gelan gelditzea, 'arriskurik' hartu gabe", gehitu du Iriondok ondotik. "Haurrak babestu eta dena zaindu behar horren izenean, iparra ere galdu da zenbaitetan", azpimarratu du Salegik.

Dena aldatu da, "irakaslegoa, ikasleak,

gurasoak, lan egiteko modua... dena" diote, eta hala jaso dute santanetako programan bertan ere. Fotokopiak egiteko gaurko teknologiarik ez zuten garaian, etxean gelatinarekin sortutako orearekin egiten zituzten kopiak beren belaunaldiko irakasleek; gaur, arbel digitalak dituzte gelan eta egokitu behar izan dute garai berrietara, saltoka, bizitza honek garamatzen abiada bizian. Hala ere, ezin eskertuago daude ofizioari. Dena eman dute eta gehiago jaso bueltan, eta gaur 50 bat urte bueltan dituztena arteko guztiak ikusi dituzte hazten. "Oraintsu konturatu naiz nire lehenengo ikasle izan ziren haiekin 13 urteko aldea baino ez dudala. Ikaragarria da", dio Arrietak, eta ekin diote anekdotak zerrendatzeari. Kontxik berak kontatu du duela bost bat urte, etxeko armairuak txukuntzen ari zela, gaur 43 urte dituztenen umetako lanak eta azterketak topatu zituela etxean eta halako bulkada berezi bat sentitu zuela, haietako batzuen seme-alaben irakasle

MENDARO 1983

Mendaroko Udalak santana zoriontsuak opa dizkizue.

Anjel Bazterretxea



Arrate Iriondoren artxibokoa



zela gertatu zitzaiolako hori. "Ikasle nuen haitako bati amaren lanak ere eman nizkion", oroitu du, hunkituta. "Udaberriko loratzearen pareko zerbait da hau. Eta ez dago hori baino gauza ederragorik. Gertatu zait umetan eskolan kostata ibili den umea gero mediku egin dela jakitea. Satisfazio handiak eman dizkigu lanbide honek", dio Arrate Iriondok.

Irakasle izateko ikasi zuten eta irakasle izan dira 40 bat urtez, baina izan dira, baita ere, guraso, aholkulari, erizain, mediku, psikologo, gizarte-laguntzaile, bertsolari eta gehiago, eta egin dute barre, eta aldizka, negar ere bai. 9 bat urtekoekin Urretxura egindako irteera batean gertatutakoa ekarri du gogora Salegik. "Besoa txikitu zuen ikasleetako batek. Ikusi egiten zitzaion hezurra tontortuta besoan. Urretxun geunden. Galdetu nion aterpetxeoari ea autorik bazuen eta eraman genuen Zumarragako

ospitalera, gaur pentsaezina litzatekeena. Amari ere deitu genion ospitalerako bidea har zezan. Iritsi ginen gu hara eta mutikoari ebakuntza egin behar ziotela esan zidan medikuak ikusteaz batera eta ezin nuela umearekin egon. Umea barruan kurriska batean, eta ni, kanpoan". Ez zen haur haren guraso, irakaslea baizik, baina bazen, hein berean, aita, bi semerena, eta Urretxutik Zumarragara autoz joateko erabakian izango zuen horrek ere pisurik behar bada.

Kontxi Arrietak ere hartu izan zuen autoa ikasleren bat medikuarenera eramateko. "Gaurkoek beste baliabiderik ez zuten garai batean gurasoek eta joanda nago ni neure autoan amaume bi hartuta Donostiara neurologoarengana". Gaur, ezer ez da berdin. "Galdu dira gauza batzuk eta irabazi beste asko", diote aho batez erretiroa irabazi eta jaietan merezitako aitortza jasoko dutenek ■

**TXIRRISTAKA
TABERNA
1983**

40 . urteurrena

40 urte bete ditugu. Mendaro herriak beste.

40 urte, zuen ondoan eta zuei esker!

40 urte santanak zuekin ospatzen!

Mila esker gugan jarritako konfiantzagatik.

Mendarozabal, 1 Mendaro - 943 756 139

Txarangakide berriak eta erraldoiak dantzan jartzeko zazpi laguneko taldea, festarako prest



Txirristakaren 40. urtemugako ospakizunean egin zuten debuta haietako bik, baina aurrenekoz arituko dira Bizi-Poza txarangarekin santanetan: Ander Ariznabarreta, Josu Romero eta Egoi Motriko dira, eta 29, 14 eta 8 urte dituzte hurrenez hurren.

Anderrek klarinetea ikasi zuen, baina bada denbora saxofoi altua jotzen dabilena. Soraluzeko txaranga jotzen du, hangoa baita sortzez, eta Josu Motriko bizilagunak proposatuta hasi da Bizi-Pozarekin jotzen. "Bizilaguna dut Josu eta entseatzen ari nintzen egun batean etxetik entzun ninduen eta entsegu batera joatea proposatu zidan. Portale berean bizi gara Josu Motriko, Egoi, ni eta baita Xeber Loiola Bizi-Pozako saxoi jotzailea ere", zehaztu du Ariznabarretak.

Josu eta Egoi Ameikutz musika eskolako ikasleak dira, baina Andoni Riañok ematen dizkie tronpeta eskolak, eta hark animatu zituen pausoa ematera ere. Ez zuten birritan pentsatu beharrik izan erantzuna. "Ni txiki-txikitatik ibili naiz beti txaranga, aitaren ondorik, jostailuzko tronpeta batekin edo saxofoi txiki batekin, eta gogo handia neukan benetako tronpeta jotzeko. Kantu batzuk ikasi ditut Andonirekin eta aitarekin [Josu Motriko tronboi jolea du aita] eta jo nituen Txirristakaren festan ere. Klean denak ibili zitzaizkidan agurtzen eta animoka, eta oso gustura ibili nitzen. Santanetan

jotzeko ere ilusio handia daukat", esan du Egoik. Berezia izango da Josurentzat ere. Aurreneko aldia da musika eskolatik kanpo tronpeta joko duena eta aitortu du urduritasun puntu bat baduela, baina handiagoa dela duen ilusioa. "Herrian txaranga egotea oso garrantzitsua da, poztu egiten duelako jendea. Orain, oso jende gutxi dago haizezko instrumentuak ikasten, baina nik hiru urte egin ditut Andonirekin eta hark eman dit aukera hau. Oso irakasle ona da".

Konpartsa berria

Erraldoi eta buruhandi gabe, nekez dago jairik, eta hori pentsatu bide dute Mendaron gure ondorengo protagonistek ere. Jai batzordetik umeen egunari pare bat buelta emateko proposatu zieten Jon Larrañaga eta Ainhoa Gonzalez, eta hortan ari zirela erabaki zuten aspaldian buruan zebilkitenari heltzea. Erraldoiak dantzatzeko taldetxo bat prestatu nahi zuten, urtean behin baino ateratzen ez diren erraldoiak gehiagotan jartzeko dantzan. Eta osatu zuten santanetarako taldea: Aitzol Urainek, Ander eta Alain Zulaika lehengusuek, Unai Mendikutek, Andoni Riañok eta eurek biek osatzen dute taldea eta estreinakoz irtengo dira santanetan erraldoiak dantzatzera. Taldean bertan dute irakaslea, Andoni Riaño musikaria eta Mendaroko Gazteak dantza taldeko ikaslea ■

Ondo pasa jaietan!



RESTORANTE
LUZAIDE
MENDARO

PLATER KONBINATUAK
20€-KO MENUAK
MENU PERTSONALIZATUAK ENKARGUZ

943 756 166 - MENDAROZABAL Z/G. MENDARO

Berriro

EGINGO DUGU.

Gora Santanak!



ehildu
Mendaro

Mendaroko Haurreskola

Garagartza, 5
943 755 219



Haurreskolak

Ondo pasa jaietan!



Irailetik aurrera haurreskola DOAN!

AUTOZERBITZUA

ELKAR

COVIRAN



Ondo pasa jaietan!

Kilimon Hiribidea, 5 behea
MENDARO - 943 608 031

Enkarguak hartzen ditugu

Egin bazkarrako ZUPE erreserba!



ERRETELIA

943 756 028
Garagartza, 32 - MENDARO

Ondo pasa santanetan.



Beren eguna izango dute aurten gazteek

Gazte eguna zena Kuadrilla Eguna bihurtu da urteen joanean Mendaron, eta bere izatea galdu duela ikusita, gazteei dagokien tarte itzultzea erabaki dute aurten Jai Batzordean. Udalak ere begi onez hartu du proposamena, eta jai gose handiena ere gazteek izango dutela iritzita, lehenengo eguna gorde dute haientzat, uztailaren 22a. Gazte Asanbladakoek hartu dute eguna antolatzeko ardura, Jai Batzordearen babesean, eta osatu dute haien neurrirako egitaraua, Udalaren laguntzarekin.

Egun horretan jokatu dute Gazte Asanbladakoek antolatutako futbito txapelketako final handia ere, 11:00etan, eskolako jolastokian. Zortzi talde lehiatu dira guztira eta bihar erabakiko da zeintzuk bi taldek jokatu duten finala. Birritaka talde mutrikuarra eta Ormola, Txahalak eta Morangas mendarorarrak sailkatu ziren finalerdietarako, eta bihar jokatu dituzte itzuliko partidak, 10:15ean bata, eta 11:15ean bestea. Hilaren 22an, futbol kontuak amaituta, txupinazora batuko dira gazteak, eta ondoren, 15:00etan, herri bazkaria egingo dute, frontoian. Azken urteotan Kuadrilla Eguneko bazkariak izan dituen ezaugarriak izango ditu hein handi batean Gazte Eguneko bazkariak, bazkalosterako jolasak ere pentsatu dituztelako, baina gazteek eurek eurentzako sortutako eguna izango da. Nork bere eguna izango du beraz santanetan aurten, umeek eta nagusiek ere badutelako euren egun propioa, eta haiek ere izango dutelako beren bazkaria, Kuadrilla Egunekoaz gain. Uztailaren 23a da Umeen eta Nagusien Eguna, eta ohi legez, Aizpen prestatuko diete bazkaria adinekoei elkarteko bazkideek. Umeentzako, berriz, herri bazkaria antolatu dute aurten Jai Batzordetik, duela hamar bat urtetik hona egiten ez zena. Frontoian izango da bazkaria, 14:00etan. LH1etik gorako umeek etxetik eramandako ogitartekoa jango dute frontoian, eta jolasak egingo dituzte gero. Edaria eta azkenburukoa bertan banatuko dizkiete, doan. Jai batzordetik jaietako zapi berdea eta



osagarriren bat eramateko eskatu diete haurrei, dela betaurrekoak, ileordea edo beste edozer, eta bazkaritarako txartelak Morroskillon jaso beharko dira. Era berean zehaztu dute txikienak gurasoen ardurapean egon beharko direla.

Gazte Eguneko bazkariak eta bazkalosterako jolasez gain, iluntzeko elektrotzaranga eta Jo ta Itoren kontzertua ere gazteek lotu dituzte, baina bestelako ardurak ere hartu dituzte aurtengo jaietan. Indarkeria matxistaren kontrako protokoloa lantzen ere jardun dira herriko beste eragile batzuekin batera, eta Kuadrilla Egunerako kamiseten ardura ere beren gain hartu dute. Gazte Asanbladak 2019an jaietarako atera zituen kamiseta koloretsuek izan zuten arrakasta ikusita, diseinu bereko kamisetak atera dituzte aurtengorako, ordutik gordetzen zituztenek berririk erosi beharrik izan ez zezaten. *Jaixetan enixe etxea* leloa erabiliko dute mendarorrek paparrean, beraz, Kuadrilla Egunean. Gazteek sortutako leloa da, jairako oihua, gazteek eta hain gazte ez direnek jantziko dutena, parrandarako gogoia duenak ez duelako festarako aukerarik faltako santanetan, adina edozein dela ere ■



Mendarozabal kalea, 4
943 033 835 / 613 995 572



Gora santanak!

JO TA ITO

Musika taldea



✍️ Ainara Argoitia

Hodei Gallastegik (baxua), Amets Fernandezek (gitarra), Unai Ayalak (bateria) eta Asier Olabek (ahotsa) osatzen dute Jo Ta Ito taldea, eta bihar zortzi, uztailaren 22an, kontzertua emango dute Mendaron, santanen barruan.

“Dena emango dugu plaza dantzan jartzeko”



Ez da askotan gertatzen izen handikoen ondoren jotzea, baina zuek Puro Relajoren atzetik joko duzue zuen herriko jaietan, Gazteen Egunean.

Amets F.: Guretzat santanetan eta Gazteen Egunean jotzea sekulako aukera da, eta Puro Relajoren atzetik jotzea ere bai. Ordu ona da gainera, eta Puro Relajo ikustera etorriko den jende bat ere plazan egongo da. Oso estilo ezberdina da gurea, baina pentsatzekoa da plaza beteta egongo dela gu hasterako.

Asier O.: Hala ere, ez dugu haien eszenatoki berean joko, haiek euren musika ekipoa dakartelako eta euren egindakoan joan egingo direlako, baina dena den, pozik gaude. Jaietako lehenengo egunean, gainera, jai gogo handia egoten da eta guk dena emango dugu plaza osoa dantzan jartzeko.

Askorentzat ezezagunak izango zarete, baina talde honek baditu urte batzuk, ezta?

Amets F.: 13 urte zituen Asierrek eta 14 nik taldea sortu genuenean, eta orain, 21 urte dauzkat nik. Gurasoen garajeen hasi ginen biok, baina gerora batu zitzaizkigun lagunak. Beñat Fernandez hasi zitzaigun bateriarekin laguntzen hasieran eta Gararockekoek eman ziguten lehenengo kontzerturako aukera, 2017an. Ordurako lagata

zeukan Beñatek eta Unai geneukan baterian. Eta handik gutxira batu zen Hodei.

Hodei G.: Nik ez neukan musika formaziorik, baina baxua eman zidaten eskura. Ametsek erakutsi zidan oinarrizkoa eta nire kasa ikasi dut gero. Hobetu dugu ordutik!

Unai A.: Estreinako Gararock hartakoa oso berezia izan zen guretzat. Geroztik hamarren bat kontzertu eman ditugu, gehienak herrian. Mendarotik kanpora, Elgoibarko eta Debako gaztetxeetan jo dugu.

Zer izango da zuen kontzertua?

Amets F.: Punka, oi! musika, egiten dugu, eta euskal taldeen bertsioak jotzen ditugu bereziki. Hori da guk eskaintzeko daukaguna, 24-25 bat kantu. Su ta Gar, Kortatu,

Cicatriz, Barricada, La Polla Records, Kaleko Urdangak... eta beste batzuen bertsioak egingo ditugu, baina gure kantu bat ere badaukagu eta joko dugu: *Txakurrak daude*. Amets eta biona da letra. Guk daukagun onena emango dugu santanetan.

Indarra sobera daukazue, ilusioa gainezka. Zer beste asmo darabilzue buruan?

Hodei G.: Zuk esan duzu. Gogotsu gabiltza eta nahi genuke gure kantu propio gehiago sortzea eta maketaren bat-edo grabatzea ■

Eraserik gabeko jaien alde, bat eginda



Udal ordezkariak eta hainbat norbanako protokoloaren aurkezpena.

Jaiak askatasunez eta elkarrenganako errespetuz gozatzera deitu du Mendaroko Udalak, baina jakitun da jaien testuinguruan erreproduzitu egiten direla sarri egunerokoan bizi dugun indarkeria matxistaren zenbait molde, eta horregatik, indarkeria matxistaren



kontrako protokoloa landu du santanetarako, herriko beste zenbait eragiletako ordezkariekin batera. Asmo horrekin bilera batera deitu zituen ekainaren 21erako Gaztetxeko, Gazte Asanbladako, Jai Batzordeko, Arno guraso elkarteko eta Emakume askotariko taldeko ordezkariak, Udalak berak sortutako lehen zirriborroa aztertzeko. Hamabost egunera elkartu ziren berriro eta han erabaki zuten sensibilizazio kanpaina egitea eta protokoloa herriko taberna, denda eta gainerako lekuetan zabaltzea. Era berean, adostu zuten uztailaren 17an, astelehenean, prestakuntza saio berezia egitea herrian, protokoloan jasotakoa azaltzeko. 18:30ean egingo dute saio hori, udalbatza aretoan, eta nahi duen orok hartu ahal izango du parte. Are, ahal den jende gehien biltzea komeni dela zehaztu dute.

Baina indarkeria matxistaz eta tratu txarrez ari garela, dei berezia egin diete gizonei, euren erantzukizunaz ohartarazteko eta jarrera

matxisten konplize izan ez daitezen. Emakume bat arriskuan dagoela uste baduzu edo erasotua izan dela esaten baduzu:

1. Ez epaitu. Ez jarri zalantzan haren hitza.
2. Konfiantza sortu: Nola duzu izena? Zer moduz zaude? Nola lagun zaitzaket?
3. Leku lasai eta segurua eskaini eta eman baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa.
4. Sexu eraso edo bortxaketaren bat izan bada, eta nahiz eta jakin ez biktimak salatu nahi duen ala ez, jakinaraziozu jaten edo edaten badu edo arropaz aldatzen bada, frogak ezaba ditzakeela.
5. Biktimak zauriak baldin baditu edo osasun arreta behar badu, jakinaraziozu sendagileak behartuta daudela epaitegira partea bidaltzera.
7. Biktima erregulatu gabeko egoeran baldin badago ere, berdin jokatuko dugu, eskubide berberak dituela.
8. Arreta zerbitzurako telefonoak, hemen:
 - 747 420 594 (20:00etatik 08:00etara).
 - SATEVI (24 orduko zerbitzua): 900 840 111.
 - Larrialdi zerbitzuak: 112.
 - Gizarte larrialdietako zerbitzuen koordinazio zerbitzua: 943 224 411.
 - Tokiko arreta-zerbitzua: 747 420 594 (zerbitzu anonimo eta konfidentziala).

Kultur eskaintza

Bete-beteak datoz aurten santanak eta ahalegindu gara orrialde hauetan aurtengo kultur eskaintza laburbiltzen. Hemen azaltzen direnez gain, **Ñozz elektrotzaranga** eta **2 MINO Dj-a** ere ekarriko dituzte jaietako lehenengo egunean, **Gazteen Egunean**, eta **Jo ta Ito** herriko taldeak ere emango du kontzertua egun horretan, **Puro Relajoren** kontzertua amaitu ondoren.

Puro Relajo

Uztailak 22, 23:00

Nafarroa Garaikoak dira, Zangoaldea eskualdeko Oibar udalerrikoak. Bost lagunek osatzen dute taldea, eta nagusiki musika mexikarra jotzen dute, mariatxiak eta beste. Gaztelaniaz dira kantu asko, baina euskal kantari eta taldeen bertsiok ere egiten dituzte, euskaraz. Badute disko bat ere hamabost euskal kantarekin osatua. *Euskaraz kantatzen du.*



'Aurkitu gabeko altxorra' ikuskizuna

Uztailak 23, 19:30

Zirika Zirkusek *Aurkitu gabeko altxorra* ikuskizuna ekarriko du Mendarora. Antzerkia, zirkua eta umorea. Hiru osagai horiek batzen ditu ikuskizunak. Niko, protagonista, lo gelditu da Augusta Robusta pirataren liburua irakurtzen ari dela eta lo dagoela ametsetako pertsonaiekin topo egingo du.

Gozategi

Uztailak 23, 23:00

Aurkezpen handirik behar ez duen taldea da Gozategi. 1992an sortu zuten Asier eta Ainhoa Gozategi anai-arreba oriotarrek eta Iñigo Goikoetxea altsasuarrek eta goertzik hamalau disko argitaratu eta konta ezin beste plaza egin dituzte. Trikitia pop eta rock taldeen formatura egokitu zuen 90eko hamarkadan eta gaur ez dago haren kanturen bat ezagutzen ez duenik.



Elektrotxufla

Uztailak 24, 19:00etan, Mendarozabaletik

2022ko maiatzean Euskal Herriko estreinako txaranga lehiaketa irabazi zuten Azpeitian eta berehala zabaldu zen haien izen ona. Mendaroko Udalera ere iritsi zen oihartzuna eta ekarri zituzten santanetara iaz. Aurten, jai batzordetik egin dute berriro ekartzeko eskaera, iaz sortu zuten giroa aparta izan zelako. Denetarik jotzen dute, eta lotuena ere jartzen dute dantzan.



Bulego

Uztailak 24, 23:00etan, plazan

Aurrez Moonlight eta Passepartout taldeetan aritutako kideek sortu zuten Bulego. Azkoitiarrak dira eta POParen aldarrikapena egiten dute: "POPa da barrutik irteten zaiguna, egiten duguna eta aldarrikatzen duguna. Genero musikalekiko dauden aurreiritziak iraganeko kontua direla sinesten dugu eta horregatik senari jarraika sortzen ditugu gure kantuek". 2019an sortu zuten taldea, eta urte gutxian loria irabazi dute. Lau disko dituzte argitaratuak eta beren buruaz diote, askatasuna oinarrian izanda, nor bere bidea eraikitzeko eta gozatzeko deia egiten dutela.



Mugi panderoa

Uztailak 24, Bulegoren ondoren

Eibarko eta Elgoibarko "parrandazale" gazteek osatutako erromeria taldea dira. Miren Gisasola (panderoa eta ahots nagusia), Julen Bartolome (soinua eta bigarren ahotsa), Andoni Lopez (baxua), Markel Corral (bateria), Xabi Badiola (gitarra), Alaitz Almorza (tronboia) eta Danel Monterok (trontpetu) osatzen dute taldea, eta kantu itsaskorrek kantatzen dituzte, bertsoak orobat.



Debako Monreal Udal Banda

Uztailak 25, 13:30ean, plazan

1978an sortu zuten gaur egungo Debako Udal Musika Banda, udalerriko musika banda desagertuaren instrumentuak hartuta. Santi Gimenez izan zuen lehenengo zuzendaria eta geroztik makina bat kontzertu eman eta sari eskuratu dituzte. Mendarora ere sarri etorritakoak dira, eta badute sonik gurean. Adin ezberdinetako jendeak osatzen du banda eta erreperitorio zabala dute. Jazz, swing, pasobleak... denetarik jo ohi dute. Fernando Urain da zuzendaria.



Duo Covers Radio Rebelde

Uztailak 25, 19:30etan, plazan

Bi lagunek osatzen dute Duo Covers Radio Rebelde; Nagore Fernandez (ahotsa) eta Xabier Mendiluzek (gitarra), eta askotarikoa da beren errepertorioa: 80-90 hamarkadetako kantuetatik hasi eta gaur egungoetarainokoak interpretatuko dituzte, akustikoan: Amaral, Jarabe de Palo, Rozalen, Los Secretos, Sabina, Fito, Metallica, Guns and Roses, The Clash, Oasis edo Nirvana. Estilo guztietako musika egiten dute.



Tsunami orkestra

Uztailak 25, 00:00etan, plazan

Tsunami Orkestra 2002. urtean sortu zuten hainbat taldetan ibilitako musikariek, baina proiektua Paco Flores abeslariarena da hein batean. Musika eskaintza zabala dute eta euren buruaz diote publiko guztiak asetzeko adinakoa dela beren errepertorioa. Klasikoetatik hasi eta gaur egunean sona handiena duten kantuak ere jotzen dituzte, tartean euskarazko kantuak ere bai.



Obeneuke

Uztailak 26, 20:00etan, plazan

Iñigo Sorazu (bateria), Harkaitz Allur (baxua), Maddalen Arzallus (gitarra eta panderoa) eta Ameikutz musika eskolako irakasle den Saioa Lizarralde (trikitia) osatzen dute taldea, eta hamar urte badira erromeria munduan dabiltzala. Euskal abestiak jotzen dituzte eta plaza dantzan jartzeko asmoz datoz. Mendaron emango duten kontzertuan, Saioa Lizarralderen ikasle diren batzuk ere igoko dira oholtzara instrumentuak hartuta.



Santa Ana jaietako egitaraua

22 ZAPATUA: GAZTEEN EGUNA

11:00 Gazte Asanbladakoek antolatutako futbito txapelketako finala, ikastolako jolastokian.

12:30 Txupinazoa eta Katasorginaren jaietsiera Bizi Poza txarangak alaituta eta buruhandi eta erraldoiek lagunduta.

13:00 Aurten jaietako hurrei ongietorria udalbatza aretoan. Ondoren, kalejira.

15:00 Gazteen bazkaria eta jolasak frontoian.

19:00 Ñozz elektrotxaranga, Azpilgoetatik.

23:00 Puro Relajo taldearen kontzertua Herriko Enparantzan.

Ondoren, Jo Ta Ito taldearen kontzertua, eta gero 2MINO DJaren saioa goizaldera arte.

23 DOMEKA: HAUR ETA ADINEKOEN EGUNA

11:00-14:30 Puzgarriak eta jolasak eskolako jolastokian.

11:00 Txu-txu trenaren Herriko Enparantzatik.

11:30 Molto moto lasterketa Errekabarren zubian, Azpilgoetan hasita.

12:00 Euskal dantzak eta herriko nagusiei omenaldia, frontoian, Mendaroko Gazteak dantza taldekoen eskutik.

Ondoren, Txu-txu trenaren Aizpeko bazkarira joateko.

12:30 Meza nagusia, Azpilgoetako elizan.

14:00 Haurren bazkaria Goñati frontoian. Ondoren, haurrentzako jolasak.

14:30 Nagusien bazkaria, Aizpe elkartearen hango bazkideek prestatuta.

16:00-18:00 Puzgarriak eta jolasak, eskolako jolastokian.

18:00 Haurren danborrada, Bizipoza txarangarekin.

19:30 Zirika Zirkusen 'Aurkitu gabeko altxorra' ikuskizuna haurrentzat, Azpilgoetan. Euria egingo balu, frontoian.

20:30-22:00 Txu-txu trenaren plazatik.

23:00 Gozategiren kontzertua, Herriko Enparantzan.

24 ASTELEHENA: KUADRILLA EGUNA

12:00 Bizi Poza txarangarekin kalejira, Azpilgoetan hasita.

13:00 Paella lehiaketa, eskolako jolastokian.

Ondoren, kuadrillen bazkaria.

17:30 Playback lehiaketa Mendarozabalen, jai batzordekoen eskutik. Ondoren, paella lehiaketako eta playbackeko sari banaketak.

19:00 Elektrotxufla elektrotxaranga, Mendarozabaletik.

23:00 Bulego taldearen kontzertua Herriko Enparantzan.

Ondoren, erromeria Mugi Panderoa taldearekin, eta gero DJ saioa goizaldera arte.

25 MARTITZENA: SANTIO EGUNA

11:00 Uretako atrakzioa ikastolako jolastokian.

11:00 Erraldoi eta buruhandien konparttsaren kalejira, Herriko Enparantzan hasita.

12:30 Meza nagusia, Garagartzan.

13:30 Debako Monreal udal bandaren kontzertua, Herriko Enparantzan.

16:30 Pilota jaialdia

■ Lehendabizi: Mendaroko pilota eskolako partidak.

■ Bigarrenik: Egiguren V-Gaskue / Salaberria-Albisu.

■ Estelarra: Ezkurdia-Rezusta / Altuna III.-Martija.

19:30 Duo Covers Radio Rebelderen eskutik dantzaldia Herriko Enparantzan. 80 eta 90eko hamarkadetako musika.

22:00 Nagusien danborrada, Mauxitxa txarangarekin. Eskolan hasi eta frontoian amaitu.

00:00 Tsunami orkestaren dantzaldia, Herriko Enparantzan.

26 EGUAZTENA: SANTA ANA EGUNA

10:20 Txistulariekin prozesioa Herriko Enparantzatik Garagartzako elizara.

10:30 Meza nagusia, Garagartzako elizan.

Ondoren, erromeria Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariarekin eta Unai Andonegi eta Imanol Goikoetxea trikitilariarekin, Bustin Alde elkartearen laguntzarekin.

18:00 Herri kirolak, frontoian. Mendaroko bikotekako II. Santana Aizkolari Txapelketa.

20:00 Erromeria Obeneuke taldearekin, Herriko Enparantzan.

22:00 Jaien azkena. Katasorginaren igoera.



Ondo pasa
Santa Ana jaietan!



www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Ibargain 17, AC behea - Eibar Ondo pasa
943 202 268 jaiak!

EGUNEKO ZENTROA ZUREKIN S.L.



Ondo pasa jaietan!

Azpilgoeta, 32
20850 Mendaro

Tel: 943 031 746
e-posta: zurekin@euskalnet.net

ABUZTUKO ORDUTEGIA:

**ASTEARTETIK
LARUNBATERA:**
08:30-13:30
(8tik 19ra itxita)

**OLATZ
ILEAPAINDEGIA**

UNISDX

625 999 694
843 631 213

Ondo pasa jaietan!

@olatz_ileapaindegia

TAXI

**Kontxi Urain
MENDARO**

Mobila:
607 575 728



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
CNCra AUTOMATIZAZIOA.
ERREMINTA MAKINA BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.



SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industrialdea SE-5 • 20850 Mendaro
943 741 658 / 639 710 183 • Faxa: 943 742 346
www.santosypatxi.com • comercial@santosypatxi.com

LAGUN 943 756 222
BETIKOAK Herriko Enparantza, 14 - Mendaro

Pintxo beroak: Tortillak (urdaiazpikoa, txorizoa, hegaluzea)
Solomoa edo hirugiharra (Gazta, aukeran)
Txorizo egosia

Pintxo hotzak: Urdaiazpikoa - Atuna (maionesarekin aukeran)
Razioak - Kokretak - Patata minak - Txorizoa
Oilasko-hegalak - Rabak

Ogitartekoak: Tortillak (urdaiazpikoa, txorizoa eta atuna)
Solomoa (gazta, hirugiharra, piperra)
Hirugiharra

Hanburgesak

ORMOLA TABERNA

Azpilgoeta kalea - Mendaro

RAZIOAK = PLATER KONBINATUAK



Egin zure erreserba: **943 54 38 29**



orroskillo
943 033 631

Ondo pasa jaietan!

■ Euskal jantzien erakusketa zabaldu dute Mendaron, garagardo azoka solidarioaren baitan



Atzo hasi zuten Mendaron garagardo azoka, eta horren baitan euskal jantzien erakusketa ere zabaldu dute Yulia Prokopenkok (Cherkasy, Ukraina) eta In Leike elkarteak jubilatuen ondoko lokalean, Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldekoek lagatako arropekin eta Gloria Sukia jostun debarrak sortutako euskal jantziekin.

✍ Ainara Argoitia

Ez dator egitarau ofizialean, baina Mendaroko garagardo azoka solidarioaren baitan antolatu dute euskal jantzien erakusketa Yulia Prokopenkok eta In Leikek. Iaz, Ukrainako arropekin osatu zuten erakusketa Prokopenkok, eta hura ikustera gerturatu zen jendetza ikusita, aurten hemen bertako jantzi tradizionalekin egitea erabaki dute. Erakusketa atzo zabaldu zuten eta lau egunez egongo da zabalik printzipioz, baina ari dira luzatzeko aukera aztertzen (Goizez: 11:00-13:00. Arratsalde: 19:00-21:00).

Gloria Sukia jostun debarrak hamalau bat jantzi erakutsiko ditu erakusketan eta Haritz Euskal Dantzari Taldekoek Zuberoako maskaradetako bost jantzi eramango dituzte erakusketara. Txerreroarena, gathuzainarena, kantiniersarena, entseñariarena eta zamaltzainarena.

Maskara zabaldu ohi duena izaten da txerreroa eta zaldi buztana duen makila luze bat eraman ohi du eskuan, dantzan ari denean batera eta bestera astintzen duena. Sorgin-guraizeekin jendea aztoratzea izan ohi da, berriz, gathunazainaren egitekoa maskaradan eta txaketa eta galtza urdinak janzen ditu. Kantiniersa maskaradako pertsonaia berrienetako bat da, antzinako erromesaren ordeztartu zutena, eta Frantziako armadaren koloreak ditu: txaketa urdina, aurrean zuria eta gona gorria. Entseñaria, berriz, bandera eraman ohi duena izaten da, eta zamaltzaina dantzari nagusietako bat da maskaradan, gorrien taldeko kidea, batzuen ustez zaldizko gerlari bat irudikatzen duena, eta beste batzuen ustez, zentauroa ■

GLORIA SUKIA

Jostuna

✍️ Ainara Argoitia

Azokaren batetik ezagutuko duzue beharbada Gloria Sukia (Itziar, 1942), urte asko egin dituelako azokaz azoka euskal jantziak saltzen. Erretiroa hartua du hortik, hala ere, eta gaur lasaiago bizi dela dio, nahiz arratsaldero egiten duen josten. 81 urte ditu eta euskal jantziak josteak bizia ematen diola dio.

“Neure satisfaziorako josten dut bakar-bakarrik”

Noiz ekin zenion euskal jantziak josteari?

Bizi osoa daramat josten. Ume-umetan hasi nintzen josten, panpinak janzteko. Gero, mertzeria izan nuen Zarautzen eta hantxe zaletu nintzen euskal jantziatarara, tradizio handia dagoelako han. Jantzi zuri-beltzak josten nituen bereziki nik. Gero, hasi zen jende bat gure arbasoen janzkera ikertzen eta ikusi zuten garai batean kolorea ere erabiltzen zutela eta hasi ginen denok beste arropa batzuk sortzen.

Azokak laga zenituen, baina jarraitzen duzu josten orain ere, ezta?

Bai, urte asko egin ditut plazaz plaza eta Mendaron ere izana naiz Kontzezio Egunez. Baina erretiroa hartzearekin batera utzi nuen hori; josteari ez diot utzi, hala ere. Atsalde osoa ematen dut josten, egunero. Bizia ematen dit josteak eta afizioz egiten dut. Ez dut enkarguz lan egiten. Neure satisfaziorako josten dut bakar-bakarrik. Jantzi mordoska bat dauzkat josita eta horretxek saltzen ditut. Lehenago, azokaz azoka ibiltzen nintzenean, presaka ibiltzen nintzen, sortu behar zelako azokara eramateko eta etxera erostera zetozenentzako ere bai. Garai hartan euskal jantzien boom halako bat ere gertatu zen gainera, eta eskaera handia izaten genuen.

Entzuna daukat, gainera, zuen etxean nahi duenak burutik oinetaraino janzteko aukera duela.

Bai, hala da. Zortzi anai-arreba gara gu, eta



zazpigarrenak, gure neba Martinek, abarkak egiten ditu. Mundu osora saltzen ditu gainera. Gurasoen oinetako dendan hazi ginen gu eta Martinek eman zion erreleboa aitari. Behin etorri zitzaion saltzaile bat dendara eta esan omen zion Gasteizen bazela abarkagile bat lanbidea uztekotan zena eta nahi bazuen erakutsiko ziona lanbidea. Lanbidea irakatsi eta makineria guztia uzteko ere prest zegoela esan zion saltzaile hark eta animatu zen gure neba. Martinek jositako abarka batzuk ere eramango ditut erakusketara, oso politik egiten dituelako, koloretakoak-eta. Deban dauka denda, baina hura ere erretiroa hartzeko adinera arrimatuta dago.

Gaur egun eskatzen al ditu jendeak euskal jantziak lehen beste? Nolakoak dira salduenak?

Garaiak izaten dira. Gabonetan, euskal jaietarako... hasten da jendea jantzi bila bereziki. Garai batean, beltzak eta tantodunak bakarrik ikusten genituen kalean, baina orain koloretakoak eskaintza asko handitu da. Hala ere, beltza eta grisa oso gustuko ditu jendeak oraindik. Hala ere, tonu urdindun arropa da gehien saltzen dena. Eta granatea eta beltzarekin egindako nahasketek ere estimazio handia dute.

Zer ekarriko duzu Mendarora?

Emakumeentzako hamarren bat jantzi eta gizonezkoentzako beste bi-hiru apartatuta dauzkat, baina maniki gehiago lagatzen badizkirate eramango ditut gehiago ere, baita umeenak ere. Urtebete inguruko haurrentzat hasi eta 42 tailara arteko jantziak josten ditut ■

GIRO BIKAINEAN JOAN DIRA URAZANDIKO JAIK

✍️ Ainhoa Andonegi

40 urteko etenaren ostean iaz berreskuratu zituzten Urazandiko jaiak, eta aurten, "iazko akatsetatik ikasita", egitarau bete-betea prestatu dute jaietarako. Adin tarte guztientzako ekintzak sartu dituzte asteburuan, eta bakoitzak bere momentua aurkitu du jaietz gozatzeko. Urasandi okindegikoek eman zieten hasiera jaiari bariku atsaldean, eta eztanda egin zuen festak. Domekara arte ez zuen jaiak etenik izan Urazandin, eta jai batzordeko kideak "oso pozik" agertu dira herritarren parte-hartzearekin. Nekatuta, baina aldi berean, hurrengo urtekoak antolatzeko ilusioz amaitu dute. Argazki gehiago: barren.eus





Bi erraldoi dantzari aurkeztuko dituzte gaur zortzi

Datorren barikutik aurrera bi erraldoi berri izango ditu Elgoibarko erraldoi eta buruhandien konpartsak. Haritz dantza taldearen 50. urteurrenaren harira, erraldoi berriak bi dantzari izatea adostu dute Udalak eta azken urteetan erraldoiak dantzan jartzen dituen taldeak. Hasiera batean dantzari anonimoak izatea pentsatu zuten, baina azkenean erraldoi berriak Haritz dantza taldeko bi



dantzari historikoren trazara egin dituzte. Jon Lizarralde eta Arantza Aginako izango dira konpartsako erraldoi berriak. Udalak 11.660 euro ordaindu ditu bi erraldoiak eta Mikel Ibartzabal artisau bergararrak egin ditu. Aurrerantzean, Asensio Altzola eta Katalina Ibarra erraldoiak Kultur Etxeko sarreran egongo dira, eta bi dantzariak Aita Agirre kulturguneko beheko solairuan. Erregea eta erregina erretiratu egin dituzte, zahartuta zeudelako. Uztailaren 21ean aurkeztuko dituzte Kalegoen plazan, 18:30ean.

'Catan' mahai-jokoaren Espainiako Txapelketan lehiatu da Mikel Romero mendaroarra Madrilen



Apirilean Mendaron jokatu zuten kanporaketan lortu zuen Mikel Romerok (Mendaro, 2011) Madrilerako txartela. Estatu osoko ehun bat lagun lehiatu dira han, Parlan (Madril, Espainia), eta hamaseik lortu zuten zapatu arratsaldean bertan jokatu zuten final handirako sailkatzea. Finalerako sailkatzeko hiru punturen faltan gelditu zen Romero. Madrilgo txapelkunak urriaren 27an eta 29an Konpenhagen (Danimarka) jokatu duten Europako Txapelketan parte hartuko du.

Txokoen zerbitzua eskainiko du Atxutxiamaiak irailean

Aurten ere iraileko txokoen zerbitzua eskainiko die Atxutxiamaiak Elgoibarko familiei. Lau egunetan izango dira: irailak 1, 4, 5 eta 6. Goizeko 09:00etatik 13:00etara izango dira, eta 62 euroko prezioa du zerbitzuak (Elgoibarko Izarrako bazkideek 56 euro). 08:00etatik aurrera goiz txoko zerbitzua behar dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte (bazkideek 13,5 euro). Biak hartzen dituenarentzat 73 eurokoa izango da prezioa (bazkideek, 66 euro). Izena emateko elgoibarkoizarra.eus webgunean sartu behar da. Informazio gehiagorako 943 741 746 telefonora deitu.



Rachel Therrien tronpeta-jolea izango da, Mendaroko Jazz Eguneko artista nagusia

Gararock taldeak, Ameikutz musika eskolak eta Mendaroko Udalak elkarlanean antolatu dute Mendaroko Jazz Egunaren bigarren edizioa. Uztailaren 19an izango da, 20:00etan, San Agustin Kulturgunean. Sarrerek 3 euro balio ditu, eta aurrez erosi daiteke Uztargi tabernan, eta bestela, egunean bertan kulturguneko atean.

Artista nagusia Rachel Therrien tronpeta-jolea eta konpositore kanadiar-frantsesa izango da. Tronpetaz gain, fiskornoa ere jotzen du, eta hainbat sari irabazi ditu, besteak beste, Montrealgo Nazioarteko Jazzaldi ospetsuan 2015eko TD Grand Prize Jazz Award saria eta 2016ko Stingray Jazz Rising Star Award saria. Sei disko kaleratu ditu bere ibilbidean, eta *Vena* izeneko bosgarren diskoa urteko jazz diskorik onena izendatu zuten 2021ean, Kanadako Juno sarietan. 2023an kaleratu du *Mi hogar* izeneko bere seigarren diskoa.

Tronpeta-jolea ez da bakarrik arituko oholtzan. Iñigo Ruiz de Gordejuelak lagunduko dio pianoan, Mikel Urretagoienak bateria joko du eta Dario Guibert arituko da kontrabaxuan. Guibert diziplina anitzeko kontrabaxu-jotzailea eta irakaslea da. 2015ean Herbehereetara joan zen bizitzera, eta mundu osoko musikari handiekin elkarlanean hasi zen. Ondoren New Yorken bizi izan zen bost urtez, eta gero, Madrilén. Musikari lana, eta irakaskuntza uztartzen ditu hainbat



eskolatan kontrabaxua, baxu elektrikoa eta Big Band eskolak emanez.

Iñigo Ruiz de Gordejuela da, beharbada, gurean taldeko ezagunena, besteak beste Mendaron jaioa delako eta Ameikutz musika eskolako irakasle ere izan delako. Musikari familia bateko kide da eta hamaika proiektu musikaletan murgilduta dabil aspaldian. Gasteizko Guridi kontserbatorioan hasi zituen ikasketak eta Bostonen eta Erresuma Batuan ikasitakoa da. Estatu Batuetan, Guillermo Klein, Donny McCaslin, Miguel Zenon, Dave Holland, Ran Blake, Darcy James Argue, Carmen Lundy... musikari entzutetsuekin aritutakoa da, besteak beste. 2014an, Amalur proiektua sortu zuen, eta sari ugari pilatutakoa da.

Baterian, Mikel Urretagoiena musikari ordiziarra arituko da. Herbehereetan eta New Yorken Musika Ikerketako Masterra ikasi ondoren, Madrilén bizi da. Irakasle lanaz gain, The Machetazo, Primitál, Ander Garcia Trio eta Wasabi Hurricane proiektuetako kide da, besteak beste. Sideman gisa egindako ibilbide luzea nabarmendu behar da, Jorge Rossy, Perico Sambeat, Mariano Diaz, Julian Maeso, Rachel Therrien, Kukai eta beste hainbat artista ezagunekin elkarlanean arituz.



Iñigo Ruiz



Mikel Urretagoiena



Dario Guibert

Errumaniako eta Mexikoko doinuak ekarriko ditu aurten Nazioarteko Folklore Jaialdiak

Uztailaren 21erako antolatu du Haritz Euskal Dantzari Taldeak Nazioarteko Folklore Jaialdia, eta hemen bertako dantzez gain, aurten Errumaniako eta Mexikoko taldeak ikusteko aukera ere izango da. Azken urteetan bezala, Maalako parkean izango da ikuskizuna, 22:30etik aurrera.

Doina Timisului, Timisoara unibertsitatekoa (Errumania)

Doina Timisului taldea 1959an sortu zuten, Timisoara unibertsitateko fakultate desberdinetako ikasleak batuta. Taldeak hainbat herrialdetako jaialdietan parte hartu izan du, Afrikan, Amerikan, Asian eta Europan bertan ere. Errumaniako dantzariak gehienbat taldeka aurkezten dituzte beren dantzak. Melodia zaharrak eta fantastikoak erabiliz, erritmo askotako erritu-dantzak aurkezten dituzte. Kalitate artistiko handiko ikuskizunak egiten dituzte, eta taldea oso ezaguna da, bai bere herrialdean eta baita atzerrian ere.



Viva Chihuahua (Mexiko)

Adrian de la Rosak sortu zuen taldea 2004an, eta 18 urte hauetan Mexikoko eta Europako hainbat herrialdetan aritu dira beraien kultura zabaltzen. Mexikoko Dantza Folklorikoak antzinako kultura goratzeko modu bat izan dira tradizionalki, eta haien jatorria Erdialdeko Amerikako garaietan dago. Espainiarrek lehenik, eta geroago alemaniarrek eta frantsesek, kultura modu batzuk eraman zituzten eta dantza eta musika indigenaren forman eragin garbia izan zuten. Jatorrizko dantza herrikoia nahasketak eta forma kultural berri horien agerpenak Mexikoko egungo folkloreak oinarria dira.



Haritz E.D.T.

Haritz Euskal Dantzari Taldekoek bi zatitan bereiztuko dute aurtengo dantzaldia. Lehen zatian, urtero pazko-igandez antzezten diren Luzaideko inauteria dantza koloretsu eta alaiak taularatuko dizkigute. Bigarren zatian erronomia giroa nagusituko da, eta hango eta hemengo dantzaldietan ohikoak izan diren dantzak dantzatuko dituzte.



Laura Rodriguez bosgarren postuan sailkatu da Ehunmilak proban eta Angel Quintana hogeigarrengoan



Iraupen luzeko mendi lasterkariek egutegian gorriz markatutako asteburua zen uztaileko bigarrena, milatik gora lagunek hartu baitzuten parte Ehunmilak, Goierriko Bi Handiak eta Marimurumendi lasterketetan. Elgoibartar eta mendaroarrei dagokionez, izena emanda zeuden sei lagunetatik bostek parte hartu zuten, eta bik lortu zuten proba bukatzea; biek aurreneko postuetan gainera. Laura Rodriguezek bosgarren postua eskuratu zuen emakumezkoetan, 37 ordu, 33 minutu eta segundo bateko denborarekin: Lasterketa gogorra da. "Bakoitza bere lekuan jartzen du lasterketa honek, gozatu eta sufritu, biak egiten dira, baina izugarria da. Fisikoki ondo egotea ezinbestekoa den arren, gogoia, indar mentala garrantzitsuagoa da. Ehuneko 80a buruan dagoela esango nuke", dio Rodriguezek. Gogoan izan ditu animoak eman dizkioten lagun guztiak, bere entrenatzaile Mikel Usandizaga, Iker Galarza nutrizionista eta bere ama. Gizonezkoetan, iaz moduan, Angel Quintana izan da proba bukatzea lortu duen elgoibartar bakarra. Quintanak iazko postua eta denbora ondu ditu, nabarmen. 30 ordu, 30 minutu eta 37 segundoan osatu du aurtengo proba eta 20. postuan sailkatu da, irabazlearengandik 6:05:47ra. Iaz, 51. postuan sailkatu zen, 31:41.11ko denborarekin; eta, hortaz, iaz baino ordu bat eta 10 minutu gutxiago erabili ditu aurten. Pozez gainezka dago Quintana aurten egin duen lasterketarekin. "Nire helburua proba bukatzea zen, horixe da guztion asmo nagusia, baina batez ere iaz azken kilometroetan izan nituen sentsazioak baino hobekak izatea nahi nuen, miseria handiak pasatu nituelako proba bukatzeko. Eta lortu dut. Ezin hobeto bukatu dut aurten, arazo fisikorik gabe eta buruz fresko, gozatzen, sentsazio bete-beteekin", azaldu du. Ehunmilak probaren barruan, 88 kilometroko Goierriko Bi Handiak mendi lasterketa

eta Marimurumendi mendi maratoia ere jokatu zituzten. Zazpi elgoibartarrek lortu zuten proba bukatzea (sailkapenak barren.eus).

Paula Ostiz iruindarra gailendu da Elgoibar Hiria txirrindularitza lasterketan



Elgoibar Hiria txirrindularitza lasterketaren estreinako ekitaldia jokatu zuten domekan Elgoibarren, Gipuzkoa Women Itzuliko bigarren eta azken etapa ere bazen lasterketa. Ordizian jokatu zuten zapatuan kadete eta junior kategoriako txirrindularientzako Gipuzkoa Women Itzuliko lehen etapa. Txirrindulariak 51 kilometroko ibilbidean lehiatu ziren, eta Ermitagaña taldeko Paula Ostiz Taco (Iruñea, 2007) izan zen azkarrena. Ia minutu bateko aldea atera zion bigarren egin zuen Irati Arangureni (Andoango Txirrindulari Eskola). Ostizen nagusitasunak hurrengo egunean izan zuen segida,

Elgoibarren jokaturako bigarren etapan ere mendean hartu baitzituen aurkari guztiak. Mintxetan hasi eta bukatu zen 57,5 kilometroko lasterketa ordu bat 39 minutu eta 42 segundoko denboran osatu zuen. Bakarrik ailegatu zen helmugara eta 16 segundoko aldea atera zion Irati Arangureni, eta 4 minutu eta 39 segundora helmugaratu zen hirugarren egin zuen Izaro Etxarri.

ESKU PILOTA ERAKUSTALDIA EGINGO DUTE KALEGOEN PLAZAN UZTAILAREN 15EAN

Pilota eskola sustatzeko ekitaldia antolatu du Lagunak Pilota Eskolak biharko, uztailaren 15erako, Kalegoen plazan. 12:00etan hasiko da. Batetik, partida bat jokatu dute Lagunak Pilota Eskolako pilotariak. Bestetik, hala nahi duten neska-mutilek pilotan aritzeko aukera izango dute. Plazan bertan mahai bat jarriko

dute hurrengo ikasturterako Pilota Eskolan izena ematea nahi dutenentzako. Lehen Hezkuntzako 2. mailatik aurrerako eskola umeek har dezakete parte Pilota Eskolan. Zapatuko ekitaldian parte hartu ezin dutenek ere izango dute aukera izena emateko. Horretarako, honako telefono zenbakira deitu behar dute: 690 612 927.

MASTER TALDEKO IGERILARIEK GETARIA-ZARAUTZ ITSAS ZEHARKALDIA PRESTATZEKO SAIOA EGIN DUTE



Elgoibarko Igeriketa Taldeko Master taldean diharduten igerilari ugarik dute Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian parte hartzeko asmoa eta, proba prestatze aldera, Master taldeko ia 25 igerilarik Getariatik Zarautzera igerian egin zuten joan den zapatuan, lasterketako ibilbide bera eginez. Azaldu dutenez, baldintza oso onetan igeri egiteko aukera izan zuten, eta

urtean zehar egindako lanaren ordain modukoa izan zen eurentzat joan den larunbatekoa. Itsasoaz disfrutatu eta igeriketaren kultura zabaltzeko asmoz, Elgoibar Igeriketa taldeak, parte hartzera animatu nahi du jendea. Uztailaren 22 eta 23ko asteburuan jokatu dute Getaria eta Zarautz arteko igeriketa zeharkaldia.

Dinamo Kalimotxok irabazi du estreinako 3x3 saskibalo txapelketa

3x3 saskibalo txapelketa antolatu du Elgoibarko Saskibalo Taldeak estreinakoz saskibaloia ezagutzera emateko asmoz, eta pozik daude izan duen harrerarekin. Hamazazpi talde lehiatu ziren hiru kategoriatan: senior, kadete eta infantilak. "Oso pozik gaude proba modura antolatu dugun lehen esperientzia honekin eta dagoeneko hasi gara pentsatzen nola antolatu hurrengo urtekoa ere, emakumezkoen taldeek ere parte hartzea gustatuko litzaigukeelako bigarren ekitaldian", adierazi du Carloz Lahozek. Hain justu, bera izan zen lehen txapelketa honetako irabazlea, Richard Aranzabalekin eta Mariano Alvarezekin batera Dinamo Kalimotxo taldea osatuta. Kadete mailan Baju izeneko taldea gailendu zen. Aitor Aranzabal, Josu Alvarez, Beñat Rementeriak eta Mikel Urteagak osatu zuten talde. Infantil mailako taldeen arteko lehian Turtoneitoneitors taldeak (Oihan Estevez, Paul Hernandez, Alex Hernandez eta Paul Galan) izan zen irabazlea. 3x3 txapelketaren ostean, jaurtiketa txapelketa bat ere jokatu zuten, eta Glooka taldea nagusitu zen, Iñigo Sastrek, Ibai Aranzabalek eta Mikel Lahozek osatutako taldea.



Kirol ekitaldiari amaiera emateko bazkaria egin zuten 40 bat lagunek (👉 Jabi Leon).



German Telleria izendatu dute Sanloko presidente

Sanlo kirol taldeak German Telleria Azumendi izendatu zuen presidente, aurreko barikuan egin zuten urteko batzar orokorrean. Honako kideek osatuko dute zuzendaritza berria: Oihana Telleria, Alatz Lizarralde, Ibai Gurrutxaga, Ikuska Barua, Gaizka Ibirriaga, Marijo Mugerza, Eva Barrutia, Olatz Ibarra, Myriam Barrutia, Paul Zubiaurre eta Ane Iriondo. Halere, lehen denboraldian orain arteko zuzendaritzakoen laguntza izango dute, pausoz pauso hartu nahi dute klubaren kudeaketa osoa. Aitor Urain buru izan duen zuzendaritzak zazpi urtean gidatu du Sanlo. Horiek urteko kirol eta ekonomia balantzeen berri eman zuten batzarrean. Azken denboraldiko diru kontuei dagokionez, 4.604 euroko emaitza ekonomiko negatiboa eduki du kirol taldeak (Sarrerak: 137.320 euro / Gastuak: 141.924 euro). Azaldu zutenenez, esperotakoa izan zen emaitza. "Joan den denboraldian bi talde eduki ditugu kategoria nazionalean, eta horrek gastu handiagoak ditu, bidaiak eta arbitrajeak, besteak beste. Balantze ekonomikoa espero genuena baino hobea izan da, bereziki ezin izan dugulako ekitaldi berezirik antolatu, igoera faseak, sektore txapelketak eta dirua lagatzen duten antzerakoak".

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Goizez nahiz arratsalde. **692 454 912**

Edozertan lan egiteko prest nago. Berehala hasteko moduan. **641 984 643**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka, eta astelehenetik ostiralera. Esperientzia handia eta titulu soziosanitarioa ditut. **602 843 690**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. Etxeko langile moduan, gauez, asteburuetan edo ospitalean lan egiteko prest nago. **632 229 972**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia eta titulua ditut. **602 490 595**

Adinekoak zaintzeko eta etxeetan garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **631 785 168**

Udaran umeak zaintzeko prest nago. Urtean zehar ere zainduko nituzte, arratsaldeetan. **603 742 812**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia daukat. Garbiketa lanetan edo dendari aritzeko ere prest nago. **665 917 201**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **697 958 198**

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. Gauez lan egiteko prest. **666 493 717**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **632 881 068**

Eskaintza

DBH3ko ikasle bati eskola partikularrak emateko pertsona baten bila nabil. Batez ere, matematika, fisika eta kimika. **677 528 828**

Batxilergo zientifikoko bigarren mailako ikasle batek datorren ikasturterako Matematika eta Kimikako eskolak jasotzea nahiko luke. **669 339 529**


BESTELAKOAK

Pisua alokatu berri dut eta etxeak ez dauka altzaririk. Norbait altzariren bat botatzekotan badabil gustura jasoko nuke. **679 137 966**

90eko bi koltxo, bi kanape eta neurrira eginiko bi edredoi salgai. Estrenatu gabe. **943 741 646**

KINTOAK

1963an jaiotako kinto ospakizuna, irailaren 23an. 13:00etan Kalegoen plazan elkartuko dira eta bazkaria Sigma jatetxean. Interesatuak 70 euro sartu behar dituzte ES68 3035 0007 2500 7114 3725 kontu korrante zenbakian, izen-abizenak zehaztuz (Ordainketa uztailean egitea komeni da).

 <p>administradores</p> <p><i>Consejo Tutor de Cámpus de Administradores de Euzko Unibertsitatearen Erakundeak</i></p> <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Eraikin bateko lokal baten jabea naiz. Orain arte saltoki gisa alokatuta neukan, eta orain, taberna izateko alokatuko dut. Errentari berriak telebistako antenaren hargunea behar du, eraikin osorako orokorra dena. Nire lokalak antena hargunerik ez duela konturatu naiz, orain arte ez baita horren beharrik izan. Komunitateko presidenteari eskatu diot zerbitzu hori, eta ukatu egin dit eskatzeko eskubidea. Jakin nahi nuke ea telebista-antenaren hargunea izan dezakedan.</p> <p>Telebista antena eraikinaren elementu komun maila duen instalazio komun da. Horrek ez du eragozten, estatutuetan besterik aurreikusituz ezean, lokalek hasiera batean ez izatea antenak ematen duen seinaleaz baliatzeko behar den instalazioa. Era berean, ez litzateke oztopo izango antena jartzea lokaletara ez iristea, ibilbidea lehen solairuan amaitu delako adibidez. Egoera hori sarri ematen da merkataritza lokaletan.</p> <p>GOMENDIOA: Zuk planteatzen duzun eska-era eraikinaren elementu komunitateko batez baliatzen duzun eskubidea baliatzea da. Erkidegoak eskubide hori betetzeko betebeharra du, eta inork ezin dizu eskubide hori kendu. Beraz, hori egiteari uko egitea bidegabea ez izateaz gain, legez kanpokoa ere bada.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---



Zorionak, **Noa!**
Ondo pasa zure urtebetetze egunean!
Familiako partez, muxu handi bat, printzesa.



Zorionak, **Eneko,**
uztailaren 24an 8 urte beteko dituzulako.
Muxu potolo bat etxekoan, eta bereziki, Nikoleren partez.



Zorionak, **Jon,**
uztailaren 17an 10 urte egingo dituzulako.
Besarkada handi bat familiako guztion partez.



Kruzeroan itzarongo dizuegu! Ondo pasa, eta ondo ospatu, **bikote!**



Zorionak, **bikote!** Jada 6 udara! Ondo pasa zuen urtebetetze egunean. Muxu potolo bana familiakoan eta lagunen partetik.




Zorionak, **Alain!**
Igandean 8 urte! Ondo pasa eta muxu bat familiakoan partez.



Zorionak **Naroa,**
uztailaren 30ean 6 urte beteko dituzulako.
Muxu handi bat familiakoan eta, bereziki, Gorka eta Junerez partez.

OHARRA

Uztailaren 28ko alean ez dira zorion agurren eta merkatu txikia atalak egongo, sanbartolomeetako ale berezia kaleratuko dugulako. Opor osteko lehenengo alea irailaren 1ean kaleratu dugu eta beraz, argazkiak eta informazioa abuztuaren 30erako, 12:00ak baino lehen ekarri behar dira: barreneko@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 634 044 bidalita.

IRAILEAN ere GOZATU ATXUTXIREKIN!

 **Irailaren 1etik 6ra** 

GOIZ-TXOKO (8:00-9:00)..... 15 €/ 13,50 € Elgoibarko Izarrako bazkideek
TXOKO OSAGARRIAK (9:00-13:00)..... 62 €/ 56 € Elgoibarko Izarrako bazkideek
BIAK (8:00-13:00)..... 73 €/ 66 € Elgoibarko Izarrako bazkideek

Izena emateko epea: Uztailaren 11tik 20ra

OHARRA: Taldeak osatzeko gutxienez zortzi haurrek eman beharko dute izena.

Informazio gehiago: Amaia Lasagabaster

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea - Aita Agirre kulturunea, 3, 3 ezk.

 943 741 626  643 499 169  kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus



14 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak, Elgoibarren. Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

16:30 Odol ateratzeak, Mendaron. Mendaroko Ikastolan. Txanda hartzeko: 747 440 060

20:00 EH Bilduren ekitaldi politikoa: Espainiako Kongresurako Hauteskunde kanpainaren barruan, ekitaldia egingo dute Maalako parkean.

15 ZAPATUA

12:00 Esku pilota erakustaldia. Kalegoen plazan. Lagunak Pilota Eskolak antolatuta. Nahi duenak Pilota Eskolan izena emateko aukera izango du.

16 DOMEKA

10:00 Bisita gidatua: 'Dolmenen ibilbidea'. Karakateko aparkalekutik. Euskaraz izango da. Izena emateko: 657 794 677

17 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea: 'Zeresana, oztoporik handiena'. Loredi Salegik gidatuko du. Lilan, elebitan. Emakumeentzat, ez da izenik eman behar.

19 EGUAZTENA

20:00 Jazz kontzertua, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Rachel Terrien. Dario Guibert kontrabaxuan, Mikel Urretagoiena baterian eta Iñigo Ruiz de Gordejuela pianoan.

21 BARIKUA

18:30 Erraldoi berrien aurkezpena. Kalegoen plazan.
22:30 Nazioarteko Folklore Jaialdia. Haritz EDT-k antolatuta, Maalako parkean.

22 ZAPATUA

22:30 Dokumentala: 'Ilunpetik argira'. Segidan, Verdini dantza taldearen emanaldia. Maalako parkean.

23 DOMEKA

10:00 Bisita gidatua: 'Dolmenen ibilbidea'. Karakateko aparkalekutik. Gaztelaniaz. Izena emateko: 657 794 677

25 MARTITZENA

11:00 Sargoateko erromeria. Meza, eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte. Trikitilariak ere izango dira.

GARAGARDO AZOKA SOLIDARIOA MENDARON**UZTAILAK 14, BARIKUA**

09:30-12:30 Gailetak egiteko tailerra haurrentzat, Galletiak-en eskutik.

14:00-17:00 Enpresa bazkariak, frontoian.

18:00-20:00 Zezen mekanikoa, Herriko Enparantzan. DJ Estherrek girotuko du.

20:30-23:30 Afaria, frontoian.

23:30 Oraiko Remember. Dj Esther, Uztargiko terrazan.

UZTAILAK 15, ZAPATUA

10:00-11:00 Orubete inguruko ibilaldia Mendaro ingurua ezagutzeko.

11:00-13:00 Body combat eta SH'Bam dantza ekitaldiak, Herriko Enparantzan, TX4Fitness gimasiokoen eskutik.

11:00-13:00 Xake jardunaldia eta Catan txapelketa, Herriko Enparantzan.

11:00-13:00 Ukrainako eskulanak egiteko

tailerra haurrentzat, jubilatuen lokalean.

14:00-16:00 Bazkaria, frontoian.

20:00-23:00 Afaria, frontoian.

23:00-01:00 Bada Girorekin erromeria, frontoian

01:00 Gaueko jaia, Ormola tabernan.

UZTAILAK 16, DOMEKA

09:30-11:30 Nesken futbol partidak, plazan.

12:00-14:00 In Leike elkarteak antolatuta, Plazan Dantzan ekitaldia, Ingumarekin.

14:30-17:30 Kantu bazkaria, frontoian, In Leikek antolatuta.

17:30-20:30 Triki poteoa auzoz auzo.

20:30-22:00 Bertso afaria, frontoian. Iker Zubeldia eta Julio Soto bertsolariekin.

OHARRA: Otorduetarako erreserbak egiteko frontoian bertan edo 943 030 150 telefonoan.

Aire libreko zinea

(Kalegoen plazan)



'Dantza'

14 barikua: 22:30



'DC super maskoten liga'

15 zapatua: 22:30

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK:

Egunez: 09:00-22:00 / Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren

UZTAILA

14 BARIKUA	Barrenetxea
15 ZAPATUA	■ Ibañez / ■ Yudego
16 DOMEKA	■ Ibañez
17 ASTELEHENA	Garitaonandia
18 MARTITZENA	Arriola
19 EGUAZTENA	■ Fernandez
20 EGUENA	Yudego
21 BARIKUA	■ Oruesagasti
22 ZAPATUA	Barrenetxea
23 DOMEKA	Barrenetxea
24 ASTELEHENA	■ Ibañez
25 MARTITZENA	Garitaonandia
26 EGUAZTENA	Arriola
27 EGUENA	■ Fernandez
28 BARIKUA	Barrenetxea

2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:


Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384



Petra Arrillaga Arrillaga

2023ko uztailearen 7an hil zen, 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.
Ez zaitugu ahaztuko.



I. URTEURRENA

Beatriz Fernandez Lazpita

2022ko uztailearen 13an hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailearen 15ean, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak.





1.964

Juani Iriondo mendarorarrak lagatakoak dira gaur hona ekarri ditugun bi argazkiak. 1964koa da bata, Kontzezio Egunekoa, eta Garagartzan egina dago, eta bigarrena, 1972koa, baina eguna ez du zehaztuta. Mendarozabalen egindako argazkia da bigarrena, hori bai, eta jai-ospakizunen batean. Argazki bietan pertsona bera ageri da harria altxatzeko ahaleginean, Juaniren senar Ramon Lazkano. Umetako argazkian Agustin Lazarobaster dauka ondoan, begira, laguntzeko prest, eta gaztaroan ateratako argazkian plaza bete lagun ageri da begira, eta gertuan, Inazio Elortza eta Joxe Mari Garate.

1972





Juan Jose Arrizabalaga Larrañaga

"Iriarte"

2023ko uztailaren 8an hil zen, 74 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Juan Jose Arrizabalaga Larrañaga

"Iriarte"

2023ko uztailaren 8an hil zen, 74 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik; gero arte bakarrik.

Zure emazte Claritaren kafeko lagunak.



Antonio Azpilicueta Albeniz

2023ko uztailaren 11n hil zen,
87 urte zituela.

***Jaungoikoak gorde zaitzala miserikordiazko eta
gutziz miragarria den Amaren besoetan.***

***Konfiantza osoarekin, tentazio eta arriskurik gabeko
Aitaren etxera joan zara. Bertatik ikusiko duzu nola bizi garen,
eta zure alboan hartuko gaituzu, zeruko glorian,
eguna heltzen zaigunean. AMEN.***

Maitasunez, etxeokak.



VII.URTEURRENA

Ricardo Garate Zubiaurre

2016ko uztailaren 18an hil zen, 57 urte zituela.

***Izan zinen maitagarria,
izan zara maitatua,
utzi gintuzun,
ez zara izango ahaztua.***

Etxekoak



MAALAKO parkean



ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXXVI. FOLKLORE JAIALDIA

"DOINA TIMISULUI" (Errumania)
"VIVA CHIHUAHUA" Folklore taldea (Mexiko)
HARITZ EDT (*Euskal Herria*)

2023ko uztailaren 21ean, ostirala

22:30ean, MAALAKO parkean



Gipuzkoako
Foru Aldundia



SAREA
EUSKADKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA
DE TEATROS

